



Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedraren 50. Urteurrenaren hitzaldiak hasten dira

- Sagrario Aleman euskaltzaina eta Felipe Jauristi idazlea emango diote hasiera bihar Civivox Condestablen “Acerca de la cultura vasca” zikloari

Iruña, azaroaren 5. “Acerca de la cultura vasca” izena daraman hitzaldi zikloarekin Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedrak bere 50. urteurrenaren ekitaldiei ematen die hasiera. Hitzaldi-sorta honen bidez ikertzaileen eta komunikatzaileen hausnarketak erakutsi nahi ditu Katedrak, egun Euskal kulturaren zabalpen eta sustapenean eginkizun garrantzitsua duten artisten lanekin batera..

Lehenengo saioa Civivox Condestablen ospatuko da gaur, arratsaldeko 7etan. Bertan Sagrario Aleman euskaltzaina, Nafarroan euskararen egoeraz eta helduen euskalduntze erronkaz mintzatuko zaiguna, eta Felipe Jauristi idazlea, bere poemengatik eta haur eta gazte-ipuinengatik ezagutua, hartuko dute parte.

Azaroaren 13an, asteazkenean, Ander Manterola etnologo, Etniker Euskalerrria elkarteko presidente, eta Josetxo Beriain NUPEko Soziologia irakaslearen txanda iritsiko da. Manterolak, El Atlas Geográfico de Vasconia-ri buruz hitz egingo du eta Beriainek nortasunari buruz hausnartuko da, “Ritual, identidades múltiples y acción histórica en el universo vasco” hitzaldiaren bidez. Azkenik, hilaren 20an, Nestor Basterretxea euskultorea eta Xabier Otero argazkilaria aurkituko ditugu. Hitzaldi guztiak Civivox Condestablen izanen dira.

Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedraren 50. urteurrenaren ekitaldi nagusia Nafarroako Unibertsitateko Areto Nagusian ospatuko da azaroaren 27an, asteazkena. “El impuslo a la Cultura Vasca en el siglo XXI”-ri buruzko mahai-ingurua egongo da; eta, halaber, Ana Echaideri omenaldia egingen zaio, Katedrako buru izandako lan-urteengatik (1980-2002).